

Norkeria eta "bagoi-itzak"

Zeruko Argia, 392. zk., 1970-09-06: 3.

Portugaleko diktadore zan Oliveira Salazar il berria da.

Mussolinik asmatutakoaren antzeko Estado Berri bat eratu nahi zuala-ta egin zan 1932-an Portugalen jabe. Bere guziak eta erdi egin zituan ogeitamasei urtetan, eta orain dala bi urte min batek jota ezertarako gauza ez zala geratu zenean, portugaldar bakoitzak urtean izan zuan diru-irabazia 454 dolarrekoa izan zuan (Españian 663 dolar), diruz Europako Mendebalean atzeratuena: hontaz gaiñera, bere 9.000.000 biztanletatik % 40 analfabetoak ziran, eta dira oraindik, noski.

Non geratu da agindutako "Estado Novo" zoriontsu hura?

Gaixotu ezkerotik ez zen osorik bere buruaren jabe izatera iritxi, eta Marcelo Caetanok bere ordeztokia artu zuanean, hango Lendakari-edo dan Américo-Tomás inguratu omen zitzaion diktadore zaharrari behin baiño gehiagotan gertatutakoa esateko asmotan, baiña ez omen zan horretara ausartu. Bere etxe-zain, giltzain, bezela berrogei urtetan iraun dituan Dna. Maria de Jesús Caetano Freire-k kemen, edo esku, gehiago, eta bere buruzagitzako lan hori uzteko eskatzen zionean ala erantzuten omen zion: "Ezin dut utzi; ez dago lan hau egin lezakeanik beste iñor" (*Time*, abuztuak 10).

Eta oraindik agintari, jauntxo, zalakoan il da orain; ara pertsona bati-lotzeak nolako ondoreak ekartzen dizkion erriari eta pertsona berari.

Ez dut, ez, gaur aitatu nahi dudun euskaldunon arteko norkeria mailla berean jarriko; ala ere, gertakizun honek adierazgarri latz bat ba du guretzat; gure artean nabari baita noizean behin gure burua alako irrixtaren erraz joaten uzteko tentaldi bat. Eta idazleak beste eginbeharren artean testimonio bat emateko agindua duanez, nik nerean eman nahi dut gaur.

Onerako izango ahal da.

Oraingo gure izparringietan irakurritakoak emen:

"*Bide bakarra dugu* beraz, euskera batu bakarra sortzeko. Guztion itzala eta begirune duen *maixuari jarraitu*; inork inoiz jakin duen euskerarik gehien *dakienari men egin*; *harrokeriak eta jauntxokeriak zokoratuz, maixu horren inguruan guztiok multzoka bildu*" (*Zeruko Argia*, 1970-go uztailak 19). Mitxelenaz ari da Aita Altuna, josulagun eta azpeitiar argia, ain suarki; Mitxelena maixuak, eta gizonak, nere errespetorik aundiena (eta maitekorrena ere bai) ba du, noski; baiña ez dut uste itz hoiek duten kargarik merezi, eta nahi, duenik.

"Baina zuri Xabier Kintana, zuri ez zorionik", idazten du Xabier Gereño euskal-langille bizkor eta bihotz-zabala, "Zuk ez duzu ZURE burruka irabazi: *zu, Euskalerraren burruka, GURE burruka, irabazten ari zera*". (*Zeruko Argia*, 1970-go apirillak 26).

"Don Manuel, *zurekin gaude!*", dio don Nemesio Etxanizen bihotz maitekor eta sutsuak. "*Ta zurekin dezu zentzua galdu ez duan Euskalerria*". (*Zeruko Argia*, 1970-go abuztuak 16).

Izan eta esan hoiek aitatzeara ez da neretzat erraza izan. Nik ere egiten ditut gehiegikerizko pekatu hoiek, eta norbaitek, eta ongi egiña, aita ditzake. Elkar zaintzeak ez digu (gauzak gaixtakeriarik gabe ziurki, ahal dugun ziurrena, esaten ba dira) ona besterik ekarriko. Gure artean, 1) ez genituzke pertsonak berez on edo txartzat itsuitsuan artu behar; bere *asmo-esanak* eta bere *eginkizunak*, bakoitza bere garaian aztertuz, baizik; gizon on batek egin lezake uts behin eta ehun aldiz, eta utsak uts dirala aitortu behar, eta, bestaldetik, gizonak, nor nahi dala, txalogarririk egiten ba du, txalo!; norbaiti lotzea errazagoa da auzi bakoitza aztertzen jarri eta iritzia gizonki azaltzea baiño; 2) referentzi puntuak zaindu behar ditugu: *gizon* bat ez da Jaungoikoa, eta behin Jaungoikoz artzen ba dugu, gizona neurtzeko mailla guzi-guziak irentsi ditugu kolpetik; gero, beharra dagoenean, nola Jaungoiko hori gizon neurritza berriz jexi?

Gai hontaz berez oso loturik dagoan beste zerbait aitatu nahi nuke.

Itzen nortasuna, pixua, neurtzen asten geranean era askotakoak arkitzen ditugu; ba dira astunak, ba dira jostailuak, ba dira ariñak diranak ere. Ipar-amerikarrekin periodismoan oso nabarmen dan bat askotan aitutzen dute, batez ere propagandako bideak aztertzen diranean: *wagon-word* da; guk: *bagoi-itza* bezela aitatu genezake. Zergatik du itz batek *bagoi* esan-nahi hau? Ba, itz honek iñork karga ahal lezakean zama guziak eramateko gai dalako. Esate baterako: *aberria*, *erria*, *errikotasuna*, *egia*, *demokrazia*, *komunista*, eta honelako beste ehundaka itz.

Bagoi-itz hoiek ere neurritz, kontuz, erabilli behar genituzke elkarren artean garbi uler arazteko.

Ara lehen aipatutako lan batzuetatik artutako adibide batzuk:

"Euskaldunen artean *aurrelari* edo *progresista* diranek, *Anaitasuna* artzen dute" (*Anaitasuna*, "Euskal literaturan behar deguna", 1970-go uztaillak 30).

"*Marxismuaren demokraziak* ekarri digu etxera beste lurraldetan duan esku ederra, sator-lana egiñaz, *erri osoak bere agintepan lotzeko*" (*Zeruko Argia*, "Nun bizi gera?", abuztuak 10).

"Or agertzen dena da *guk ikasi genduan euskera*, ta ez *gaur ainbat irakurgaietan arkitzen duguna*". (Agur, "Ongi etorri", bagillak 30).

"Liburu honetan", dio *Batasunaren kuxak* (Lur editoriala), "gramatikazko legeak Euskal Idazleen Elkartek Luis Mitxelaren gidaritzapean erabakita baldin badira ere, *ederki kontsidera liteke Euskal Herriak hartutako erabakiak direla*. Liburu hau, erabaki hoiengainean, Gabriel Arestik eta Xabier Kintanak idatzita baldin bada ere, *ederki kontsidera liteke Euskal Herriak idatzitako liburua dela...*". "Euskal Idazleen Elkartea (eta haren barrenean dauden lehen aipatutako hiru izenak), Euskal Herriak sortutako frutua baita, eta egietan, *berak sortutako frutu bakarra*".

Norantz goaz Euskalerrian emendik zear?

Ba dakit, talde bakoitzekoak bere utsa azaltzen dudan neurrian asarretuko zaizkidala, eta besteen bizkar dijoanagatik poztuko.

Arazoiaren argiaz aztertzen saiatu behar genduke danok, eta ez gizonen itzalez auziak izkututzen edo nabarmetzen; alderdikeri asko uxatuko genuke honela jokatuko bagendu. Pertsonak, nola ez!, merezi du itzala, eta gizona, berez, jarraigari izan litekeana da, noski; baiña neurriak galdu gabe; ezin dugu noiz-nahi eta nola-nahi bere jokabide edo esanetan, *bereak diraleko*, itsuitsuan gizonari jarraitu.

Gaiak, auziak, dira garrantzitsuak, eta ahal dugun egi-billatze zorrotzarekin begiratzen saiatu behar genduke; eta begiramenez, eta maitasunez, esaten saia; alderdikeriitsuak uxatzen, lan polita dugu gure aurrean!

Elkar izango geran erri txukun bat osatu nahi ba dugu, gure gain artu beharko degun lana da.